

# Info **B**ilbao

Bilboko Udalak editatua

Lau Bilbogarbi daude edukiontzietan uzten ez diren hondakinak jasotzeko

Herritarren % 45ek eskura du 5. edukiontzia, nahi izanez gero, erabili ahal izateko

## Bilbon hondakinak birziklatzeari bultzada ematea



2020an hondakin guztien % 50 birziklatzeko helburua lortzeko, apurka-apurka birziklatzeko ekipamenduen eskaintza zabaltzen ari da Bilboko Udala

Herritarrek birziklatu ahal izateko ekipamenduen eta zerbitzuen kopurua handitzen ari da apurka-apurka Bilboko Udala. Europak 2020an uriko hondakinen % 50 birziklatu behar dela erabaki du eta helburu hori lortzeko ari da lanean Bilboko Udala.

Azken urteotan urrats asko eman dira helburu hori lortze aldera. Horrela bada, 2006aren amaieran Bilbon hondakin guztien % 13,48 birziklatzen zen eta 2016aren amaieran ia % 27.

### Bilketa selektiboa

Horretarako Bilboko Udalak etxe-etako hondakinak berezita jasotzen ditu, gero birziklatzeko. Edukiontzi bereziak daude ontziak, beira, papera eta kartoia, hondakin organikoak, olioak eta berriro erabili daitezkeen produktuak eta gainerako hondakinak berezita biltzeko.

Hondakinak biltzeko badira beste zerbitzu batzuk ere: Bilbogarbiak, etxez etxe jasotzeko zerbitzua eta pilak, toxikoak, etxeko ehun-gaiak eta abar berezita biltzeko zerbitzuak.

## Bilboko hondakinen bilketa selektiboa



### Ontziak

**Zer bota daiteke ontzien edukiontzira?**

- ✓ **Plastikozko ontziak:** botilak, elikagaien ontziak, garbikari eta pertsonak garbitzeko produktuen ontziak, bilgarriak, sareak, tapak eta tapoiak, poliestirenozko erretiluak, edalontziak eta platerak.
- ✓ **Metalezko ontziak:** kontserba-latak, aluminiozko poltsa eta moldeak, metalezko tapak.
- ✓ **Tetrabrikak:** edari edota elikagaiena.

**Edukiontzi-kopurua:** 1.445

**Edukiontzi bakoitzeko biztanleen ratioa:** 243

**Zetarako birzikla daitezke?:** Zapata-kaxak, bizikletentzako gurpil-hagunak, mendiko arropa eta abar egiteko.

**Zer EZ da bota behar ontzien edukiontzira?**

- ✗ Arropa eta osagarriak.
- ✗ Etxeko tresna elektriko txikiak.
- ✗ Zartagin eta lapikoak.
- ✗ Kartutxo eta tonerrak.
- ✗ CD eta DVDak.
- ✗ Xiringak.
- ✗ Apurtuta dauden jostailuak.
- ✗ Gomazko eskularru eta baldeak.
- ✗ Boligrafoak.



### Papera eta kartoia

**Zer bota daiteke?**

- ✓ Papera, egunkariak, paperezko poltsak,...
- ✓ Kartoia: Kaxak, arrautza-ontzi garbiak,...

**Edukiontzi-kopurua:** 1.157

**Edukiontzi bakoitzeko biztanleen ratioa:** 298

**Zetarako birzikla daitezke?:** Kaxak, arrautza-ontziak eta abar egiteko papera eta kartoia sortzeko.

**Zer EZ da bota behar?**

- ✗ Tetrabrikak eta poliestirenozko ontziak.
- ✗ Plastikozko poltsak.
- ✗ Paper zikinak edota plastifikatuak.
- ✗ Pardelak eta zurezko kaxak.





## Beira

### Zer bota daiteke?

- ✓ Ur, ardo, sagardo, freskagarri, ozpin, zuku eta abarren botilak.
- ✓ Jogurt, barazki, lekale, marmelada eta abarren ontziak.
- ✓ Kosmetika, lurrin eta abarren ontziak.

**Edukiontzia-kopurua:** 1.143

**Edukiontzia bakoitzeko biztanleen ratioa:** 327

**Zertarako birzikla daitezke?:** Beirazko botilak, kristalak, leihoak eta abar egiteko.

### Zer EZ da bota behar?

- ✗ Tapoiak, ez naturalak, ez sintetikoak.
- ✗ Bonbilak eta lanparak.
- ✗ Kristalezko baxera.
- ✗ Zeramika eta portzelana.



## Gainerako hondakinak

### Zer bota daiteke?

- ✓ Birziklatzeko beste edukiontzietan bota behar ez diren etxeko gainerako hondakinak.

Egoiliar-komunitate bakoitzak bere edukiontzia du.

(Zazpi Kaleetan, ezaugarri bereziak dituelako, hondakin hauek biltzeko sistema baliokideak daude).

**Edukiontzia bakoitzeko biztanleen ratioa:** 127



## Materia organikoa

(landareetatik eratorritakoen hondakinak)

### Zer bota daiteke?

- ✓ Landareetatik eratorritako hondakinak, kozinatua zein gordinak: frutak, barazkiak, lekaleak, ortuariak, ogia eta opilak, fruitu lehorrak,...
- ✓ Lore eta landareen hondakinak.
- ✓ Sukaldeko paper, paperezko ezpain-zapi, arrautza-ontzi eta uhin-kartoi zikinak.
- ✓ Infusio eta kafe-hondarrak eta kor-tozko tapoiak.

**Edukiontzia-kopurua:** 373

**Edukiontzia bakoitzeko biztanleen ratioa:** 350

**Zertarako birzikla daitezke?:** Konposta egiteko instalazioetan ongarria sortzeko.

### Zer EZ da bota behar?

- ✗ Haragi, arrain eta itsaskien hondakinak.
- ✗ Olio eta likidoak.
- ✗ Zigarrokinak eta hautsontzietako hondakinak.
- ✗ Pardelak, konpresak eta gorotzak.
- ✗ Arrautza-oskola, gazta, etxeko animalien janaria.
- ✗ Lorontzietako lurra eta turba.



## Berriro erabil daitezkeen produktuak

### Zer bota daiteke?

- ✓ Arropa, oinetakoak, etxeko tresna elektriko txikiak, jostailuak,...

**Edukiontzia-kopurua:** 75

**Zertarako birzikla daitezke?:** Arropa eta jostailuak berriro erabil edo birzikla daitezke. Etxeko tresna elektriko txikiak konpontzeko ahaleginak egiten dira.



## Sukaldean erabilitako olioak

### Zer bota daiteke?

- ✓ Sukaldean erabilitako olioak, plastikozko botiletan sartuta.

### Zer EZ da bota behar?

- ✗ Motorretarako olioak eta bestelako likidoak.

**Edukiontzia-kopurua:** 75

**Edukiontzia bakoitzeko biztanleen ratioa:** 2.562

**Zertarako birzikla daitezke?:** Kimika, kosmetika edo farmazia alorretako industrietan erabiltzeko ongarriak, bernizak, ezko, krema, detergente, xaboi, lubrifikatzaile, pintura, belak eta abar egiteko.



## Etxeko produktu toxikoak (furgoneta ibiltaria)

### Zer bota daiteke?

- ✓ Pinturak, disolbatzaileak, lakak eta esmalteak.
- ✓ Radiografiak, bonbilak eta fluoreszenteak.
- ✓ Garbitzeko produktuak.
- ✓ Tonerra, pilak eta bateriak; sakelako telefonoak eta kargagailuak.
- ✓ Kafe-kapsulak.

### Zelan jakin dezaket zeintzuk diren nire hondakinak uzteko ibilbideak?

- ✓ Telefono berdera deituta.
- ✓ Udal zerbitzuak hondakinak biltzeko egunei eta lekuei buruzko informazioa ematen du.

Bilbotarren  
% 45ek **bosgarren**  
**edukiontzia**  
erabil dezake

Bilboko Udala apurka-apurka uri guztira zabaltzen ari da edukiontzia marroia. Horri bosgarren edukiontzia esaten diote eta materia organikoa bereizita biltzeko da.

2017aren erdialdean 373 edukiontzia marroi zeuden uriko 1., 2., 3. eta 4. barrutietan eta 5.eko alde batean. Joan zen udan beste 106 edukiontzia marroi jarri ziren 4. barruti osoan zerbitzua emateko eta 5. barrutian ere hasteko (Solokoetxe).

## Bilbogarbiak

Bilboko herritarrek eta denda txikietakoek hondakinak uzteko lekuak dira bilbogarbiak.

### Zer eraman daiteke bilbogarbirira?

- ✔ Linea zuriko produktuak (etxeko tresna elektrikoak): sutegiak, hozkailuak, ontzi-garbigailuak, ikuzgailuak, ur-berogailuak eta abar.
- ✔ Linea marroiko produktuak (etxeko tresna elektrikoak): ordenagailuak, telebistak, etxeko bideoak, labeak, estufak, lehorgailuak, inprimagailuak eta abar.
- ✔ Obretako eta etxean egindako konponketetako hondakinak (gehenez metro kubiko bat).
- ✔ Beste batzuk: tresna eta gauza handiak, botikak, pilak eta bateriak, ehun-gaiak, kartoia, beira, zura eta abar.



BILBOGARBIAK	Helbidea	Orduetgia
ARTXANDA	Egirleta gana, noranzko-aldaketa	Astelehenetik barikura: 07:30 - 13:30 Zapatuetan: 07:30 - 12:30
LARRASKITU	Larraskitubidea, 64 (Iberdrolaren atzeko aldean)	Astelehenetik barikura: 07:30 - 13:30 Sábados: 07:30 - 12:30
ZORROTZA	Zorrozgoitibidea	Astelehenetik barikura: 07:00 - 20:30 Zapatuetan: 07:00 - 13:00 eta 14:00 a 19:30
ELORRIETA	Elorrieta Erribera, Udalaren Garbiketa Zerbitzuaren instalazioen ondoan	Astelehenetik barikura: 14:00 - 20:30 Zapatuetan: 14:00 a 19:30 Domeketan: 09:00 - 13:00



## Tresnen eta gauza handien bilketa

("atez ate" aurretik hitzordua eskatuta)

### Zer eraman dezakete?

- ✔ Altzari eta tresnak.
- ✔ Telebista eta ordenagailuak.
- ✔ Etxeko tresna elektrikoak.

Doan jasotzen dituzte baina alde aurretiko hitzordua eskatu behar da

### Nola eskatu behar da zerbitzua?

- ✔ Aldez aurretiko hitzordua eskatuta.
- ✔ 010 telefonora deituta finkatuko da tresnak jasotzeko eguna eta lekua.
- ✔ Altzariak eta tresnak 7 eguneko epean jasotzen dituzte.



## Pilak

### Zer bota daiteke?

- ✔ Mota guztietako pilak: botoi-pilak, litiozkoak, ...

**Edukiontzia-kopurua:** 985, eraikin publikoetan, dendetan eta ikastetxeetan.



## Informazioa eta oharrak

- ✔ **Garbiketa publiko eta hondakin kudeaketako zerbitzua**  
Ernesto Erkoreka plaza 12, 4. solairua A - 48007 Bilbo  
Telefonoa: 944 204 516 /17  
qyslimpieza@bilbao.eus
- ✔ [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)
- ✔ **Informazioa emateko udalaren telefonoa: 010**
- ✔ **Bilboko Udalaren Erregistroaren bulegoak**  
San Agustin eraikina, beheko solairua  
Ernesto Erkoreka plaza 12

**Eguneko 24 orduetan garbiketa eta bilketa-arloan laguntzeko telefono berdea:**

**944 475 056 / 900 353 060**



## Dendentzako bilketa berezia

- ✔ Atez ate hondakinak jasotzeko zerbitzua, supermerkatuentzat, arraindegientzat, ostalaritzako establezimenduentzat, dendentzat eta abarrentzat.

Horrela, bosgarren edukiontzia bilbotarren % 45en esku dago, hondakin organikoak botatzeko. Urtebeteko epean bilbotar guztien esku jartzea dago aurreikusita.

Edukiontzia marroian jatorri begetaleko hondakin (fruta, barazki, lekale, ortuari, ogi eta opil, fruitu lehorren eta holakoen hondakinak) kozinatuak eta gordinak batu daitezke, baita lore eta landare-hondakinak ere. Hondakin horiek bildu ondoren

konposta egiteko instalazioetara eramaten dituzte, ongarria egiteko.

